

# Festa suziria auzoz auzo

Uda heltzearekin batera, auzoak festetan murgiltzen hasi zaizkigu. Aurten ere lehendabiziko jaiak Larratxo eta Amara Berrikoak izan dira. Dena den, benetako uholdea hemendik aurrera dator: sanjuanetatik hasi eta irailera arte, astebukaerero jai giroan murgilduta ibili gaitzke Donostiatik irten gabe.

Aitziber Iartza

Urteroko kontua da: ekaina hasieratik iraila erdialdera arte festetan izango da Donostia. Auzo batean ez bada, ondokoan aurki ditzakegu jaiak. Aurreko asteetan Larratxon eta Amara Berrin bota zuten festen suziria, eta eskaintza zabala izan da. Kontzertuak, berbenak, sukaldaritza lehiaketak eta abar izan dira bi jaiotan. Hauekin gozatzeko aukerarik izan ez duzenok, lasai,

**San Sebastian  
zaindari dugu  
Donostian, baina  
San Juan errege**

oraindik ere aukera asko baituzue.

Astebukaerako sanjuanekin batera hasiko da benetako uholdea. San Sebastian da Donostiako zaindari, baina festa kopuruari begiratuta, donostiarren santurik gustukoena San Juan dela pentsa daiteke. Izan ere, Antiguako, Intxaurren, Amara Zaharrea eta Oletan festetan daude sanjuanetan. Hori gutxi balitz, bertako patroiz ez izan arren, sanjuanetan ekitaldiak egiten dira auzo gehienetan, San Juan sua batez ere. Zenbaitetan, gainera, jaiak apur bat luzatuz egiten dute hori, adibidez, Herreran edo Amara Berrin. Baina tira, beste santuei ere ez diegu uko egiten donostiarrok, eta San Inazio leku berezia du gurean. Santuak gora eta santuak behera, amabirginen baten aitzakian eginiko festak ez dira asko Donostian, baina Karmengo Amak jarraitzaile andana du: Kaian, Añorgan eta Amara Osinagan, esaterako.



## Zaharrak eta berriak

Denetarik dago gurean: tradizio handiko festak eta baita nahiko berriak ere. Hala, aspaldikoak izan eta oraindik ere indartsu mantentzen diren jaien artean Antiguako sanjuanak edo Añorgako karmenak aipa daitezke. Dena den, badira aspaldikoak izanagatik jendetzarik biltzen ez duten jaiak. Esaterako, Umore Ona elkarteak antolatutako Groseko sanizazioak 1906an egin ziren lehen aldiz, baina gaur egun Zipotz jaiak bihurtu dira Groseko festa nagusiak.

Festa berriak auzo berrietan edo azken urteotan asko zabalduak inguruetan

## Parrandazaleentzako egutegia

### EKAINA

8-17-23 Amara Berriko festak  
20-26 Intxaurrendoko sanjuanak  
23 Antiguako sanjuanak  
21-25 Oletako sanjuanak  
21-24 Herrerako sanluisak

### EKAINA-UZTAILA

30-Uztaila 7-12-20-22 Antiguako sanizazioak  
17-Uztailak 1-2 Alzako sanmartzialak  
28-Uztailak 1 Intxaurrendoko Kaldero Jaun jaiak

24-30-Uztailak 1-2 Igeldoko jaiak

### UZTAILA

8-16 Añorgako karmenak  
9-15 Groseko Zipotz jaiak  
13-15 Marrutxipiko jaiak  
13-15 Amara-Osinagako karmenak